

ELKARTEAK

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da. Aliantza mota bakoitza, ondo bereizitako estrategien emaitza da. Lau elkarte mota daude, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak, lehiakideen arteko aliantza estrategikoak, negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak materialen eskuragarritasuna bermatzeko. LIMUk Raten enpresarekin dauka aliantza, enpresa horrek Euskal Herriko koltxoi erosoak saltzen ditu. Gure altzariekin batera koltxoak merkeago erosteko aukera eskaintzen dugu.

Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko

Aliantza mota honen bitartez, bere jardura aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen dute. Adibidez, gasolindegien talde batek akordio bat egin dezake petrolio-konpainia batekin gasolinaren hornidura bermatzearren.

Horrez gain, aliantza bat egingo genuke eskualdeko udal ezberdinekin (hala nola, Sestao, Santurtzi edota Barakaldokoekin), herrietako biztanleek kalean uzten dituzten altzariak batu eta gero, guk haiek batutakoa berrerabiliko genuke gure altzariak egiteko. Esate baterako, guk badakigu Sestaon batzen diren altzari txikiak edo ertainak garbiguera eramaten dituztela, berriz, tamaina handiko altzariak BTB Bizkaiko Txintxor Berziklategiara eramaten dituzte, Ortuellako "La Orconera" auzoan dagoen birziklapen enpresara.